



Etxegabetzeak prebenitzeko eta kaltetutako pertsoneri arreta eskaintzeko esku-hartze protokoloa

1. Aurrekariak.
2. Xedea.
3. Esku-hartzaileen betekizunak eta egitekoak

1. AURREKARIAK

Azken urteetan, krisi ekonomikoaren ondorioz, ikusten ari gara Getxoko familia askoren diru-sarrerak murriztu direla, eta, hortaz, familiek gehiegizko zorpetzeari aurre egin behar diotela. Batzuetan, horrek dakarrena da ohiko etxebizitzaren ordainketari aurre ezin egitea, bai etxebizitza jabetzan badago, bai alokairu-erregimenean badago; eta, horren ostean, bukatzeko, etxegabetzeak direla-eta sortutako kaleratzeak datoz.

2009. urtean express etxegabetzea indarrean sartu zen, eta higiezinaren krisiaren testuinguruan alokairua sustatzea zuen xede. Horren bidez, berankortasunagatik edo higiezinaren alokairua ez ordaintzeagatik sortutako kasuetan bide arinagoak sortu ziren, eta horrek ekarri du alokairuko etxebizitzetan etxegabetzeak gertatzea Getxo udalerriko errealitaterik ohikoena izatea. Bestalde, hipoteka-maileguak ez ordaintzeagatik sortutako etxegabetzeak ere badaude.

Ondorioz, administrazio publikoaren estamentuek eta beste entitate batzuek mekanismoak antolatu eta neurriak ezarri behar izan dituzte, esku-hartzea egiteko fenomeno hori prebenitzeko eta sortzen dituen ondorioei aurre egiteko helburuarekin.

Abenduaren 5eko GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO 12/2008 LEGEAK honako hau dio: oinarrizko gizarte-zerbitzuaren zeregin nagusia da dagokion lurraldean gizarte-zerbitzuen bidez erantzuteko moduko zer-nolako beharrak dauden atzematea eta kargu hartzea. Horretarako, bere ardura izango du, dagokion lurralde horretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitako atal batera nahiz bestera nork noiz joan behar duen koordinatzea eta kudeatzea.

Martxoaren 4ko 39/2008 DEKRETUAREN BIDEZ babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoa eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriak onartu ziren. Legearen 12. artikuluan babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura zehazten da, eta adierazita dago prozedura horretatik salbuetsi ahal direla terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak eta degradatutako eremuetako biztanleak, baita etxebizitza premia bereziko egoeran dauden beste kolektibo batzuetakok ere, baldin eta kolektibo horiek sektorean indarrean dagoen araudiak definitu baditu, haien premiak etxebizitzarekin zerikusirik badu, eta, betiere, kolektibo horien eskubideak babesteko erakunde eskudunak



hala egiaztatzen badu.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko AGINDUAK onartzen ditu etxebizitza-eskatzaileren erregistroa eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedura.

Abenduaren 23ko 18 LEGEA, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa; maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa (DBE), eta urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa. Oinarrizko premiei, inklusioko prozesu baten ondoriozko gastuei eta ohiko etxebizitza edo bizitokiarekin zerikusia duten premiei aurre egiteko aldizkako prestazio ekonomikoak arautzen dituzte.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 DEKRETUAK arautzen ditu gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoek (ohikoak edo apartekoak) aurre egiteko aldiari ematen ez diren prestazio ekonomikoak.

2013ko ekainean, gizarte izaerako neurriak hartu ahal izateko helburuarekin, lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Udalerriaren Elkarteak (EUDL). Helburua da gizarte-bazterkeria egoeran edo zaurgarritasun egoera berezian dauden pertsonen administrazioen erantzun sentikor eta egoki bat izatea, gaur egun indarrean dagoen araudiaren barruan.

Uztailaren 16ko 385/2013 DEKRETUAREN bidez, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartu zen, udal- eta foru-arloko gizarte-zerbitzuek nahitaez erabili beharko dutena gizarte-bazterkeriako egoerak edo gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerak egon litezkeen irizpide komunekin balioesteko (intentsitate-maila desberdinekin: arina, apala eta larria).

Getxoko Udalak urtero ezartzen eta onartzen ditu udal gizarte-laguntzen oinarri arautzaileak (aldizkakoak ez diren udal laguntzak). Aparteko gastu espezifikoek aurre egiteko aldizkakoak ez diren prestazio ekonomikoak dira, gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak direnak. Aldizkakoak ez diren udal laguntzak udalez gaindiko eremuan indarrean dagoen legedian aurreikusitako prestazio eta gizarte-baliabide mota guztien subsidiarioak dira eta, kasuan kasu, osagarriak.

2. XEDEA

Protokolo honen xedea da Getxoko Udalak antolatutako mekanismoak definitzea; hain zuzen ere, hipoteka betearazteko egoera dela-eta edota alokairuan zegoen etxebizitza galtzearen ondorioz gertatutako etxegabetze egoerak saihesteko edota arreta eskaintzeko sortu dira.



3. ESKU-HARTZAILEEN BETEKIZUNAK ETA EGITEKOAK

3.1- Oinarrizko Gizarte-zerbitzua

Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemara sartzeko atea da, eta haren egiteko nagusia da gizarte-langileek gizarte-premiak hautematea eta arreta jartzea. Etxegabetzeak gertatzen diren egoerak prebenitzeko eta arreta eskaintzeko honako egiteko hauek betetzen dituzte:

- 1.- **Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren** baliabideei buruzko **orientazioa, informazioa eta aholkularitza** eskaintzea.
- 2.- Gizarte-langileak **gizarte-konpainiarako** laguntza ematea. Horrela, erabiltzaileak egoera kontrastatzeko, helburuak azaltzeko eta horiek lortzeko gizarte-langile baten laguntza izateko aukera izango du, prozesuan zehar laguntza eskaini ahal izango diona, instrumentala, emozionala eta hezkuntzaren zein harremanen ingurukoa.
- 3.- **Gizarteratzek eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema** -Lanbideren baliabideei buruzko **informazioa** eskaintzea,
- 4.- **Eusko Jaurlaritzaren Familien Gainzorpetzeari Aurre Egiten** Laguntzeko Zerbitzuari buruzko **informazioa** eskaintzea.
- 5.- **Baloratzea** eta, kasuan kasu, udaleko **lege aholkularitzako** zerbitzura bideratzea, baita **Doako Justiziaren Zerbitzuaren** berri ematea ere.
- 6.- **Baloratzea** eta, kasuan kasu, udaleko **laguntza psiko-soziala** zerbitzura edota Osakidetzako lehen mailako arreta zerbitzura **bideratzea**.
- 7.- **Gizarte-bazterkeriaren balorazioa** egitea 385/2013 Dekretuan oinarrituta.
- 8.- **Baloratzea** eta, kasuan kasu, babes ofizialeko etxebizitzetara ezohiko bidetik sartzeko txostena egitea. Ez ohiko bidetik sartze hori talde hauei zuzenduta dago: terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak eta degradatutako eremuetako biztanleak, baita etxebizitza premia bereziko egoeran dauden beste kolektibo batzuk ere.
- 9.- **Baloratzea** eta, kasuan kasu, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren **prestazio ekonomikoak izapidetzea** (gizarte larrialdiko laguntzak eta aldizkakoak ez diren udal laguntzak).

Hori kontuan hartuko da etxegabetzea egon denean eta pertsona edo bizikidetzako unitatea egoera hauetan badago:

- Dituen diru-sarrerak ez badira aurreko urteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbateko orokorraren bikoitza, kide kopuruaren arabera.
- Bizileku bat eskaini ahal dion seniderik edo lagunik ez du.
- Beste baliabide eta instituzioen bidez ez du bizilekurik lortu.
- Gizarte-langileak aldeko balorazioa egin du.

Etxebizitza berria lehenbailehen eskuratzeko asmoz, ondokoak planteatu ahalko dira:



- Aldi baterako ostatua hotelean (hilabete gehienez).
- Etxez aldatzeko zerbitzua eta altzari gordelekua (hilabete gehienez).
- Etxebizitza berri batera sartzeko laguntzak (aldizkakoak ez diren udal laguntzak) eta oinarrizko premiak estaltzea.

3.2- Udaltzaingoa

- Etxeetatik kaleratutako pertsonen Oinarrizko Gizarte-zerbitzua dagoela jakinaraztea, hau da, aholkularitza emateko eta euskaragarri dauden zerbitzuak zein prestazioak eskaintzeko zerbitzua dagoela.

.3- Kontsumitzailearen Arretarako Udal Bulegoa (KAUB)

- Hipoteka-mailegu bat kontratatzeko eskubide, betebeharrak eta jarraibideei buruzko oinarrizko informazioa eskaintzea.
- Beharrezkoa den kasuetan, Kontsumobide- Kontsumoko Euskal Institutura bideratzea.

3.4- Turismoa

- Gizarte-langileari hotel-plazak kudeatzea erraztea, beharrezkoa bada.

Getxon, 2018ko urtarrilaren 31n

Elena Coria Yanguas
GIZARTE ZERBITZUETAKO ZINEGOTZIA
CONCEJALA DE LOS SERVICIOS SOCIALES

Mikel Kerexeta Kortabarria
GIZARTE ZERBITZUETAKO ARDURADUN TEKNIKOA
RESPONSABLE TECNICO DE LOS SERVICIOS SOCIALES

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/>) Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-oriatdetik (<http://www.getxo.eus/> administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerretaldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz



UDALERRIKO ETA INGURUETAKO ALOJAMENDUEN ZERRENDIA